

Espainiako Erresumako gobernua euskal gizartearen beldur da

Indarra dute, gure gainetik pasa daitezke, baina gizarte prozesuak ezin dira krimenaren eta indarraren bitartez geldiarazi. Historia geurea da eta herriek egiten dute.

Salvador Allende

Oinarrizko eskubideak urratzea ohiko praktika bihurtu da geure herrian: elkartzea, manifestatzea, bozkatzea edo edozer gauza aldarrikatzea bera eskubide izan beharrean agintean direnei gordetako pribilegioak direla dirudi, indarrean den ordenari aurka egin edo zalantzan jartzen ez duen jendeari eman ezin zaizkienak. Euskal Herrian jasaten dugun errutinak agerian uzten du Espainiar Erresumak duen demokraziaren kalitate txarra.

Horrela, Auzitegi Nazionalak larunbat honetako giza eskubideen zein eskubide zibil eta politikoen aldeko manifestazioa debekatu izana logika antidemokratiko honen jarraipena da. Botere publikoak izanik manifestazioa bezain oinarrizkoak diren eskubideen bermatzaile behar luketenak, salbuespen auzitegi honek argi adierazten du espainiar zuzenbide-estatuaren ahulezia.

Ez zaie axola deialdia egin zuen herri plataformak, Adierazi EHk, eskubide eta askatasunen defentsan ibilbide zalantzaezina egin duten erakunde eta pertsona ugariren babes anitza jaso izana. Espainiar justiziaren arabera, nahikoa da legez kanporaturiko erakunde politikoen militanteek bertan parte hartzea edozein gizarte prozesu kutsaturik ager dakion bere begietara; hala, batetik, pertsona horiei oinarrizko norbanako eskubideak kentzen dizkie, bestetik, elkarlana bultzatzen duen edozeinera hedatzen dute susmoaren itzala.

Bi oinarrizko arrazoik bihurtzen dute hau guztia onartezin. Batetik, debekatu duten manifestaldiak aldarrikatzen zuena honakoa zen: eskubide guztiak pertsona guztientzat onartzea, bizitza eskubidearekiko errespetua edozein dinamika sozial edo politikoaren funtsean jarrita. Bigarrenik, ekimen hau kriminalizatu dutelarik, ekimena babestu duen pertsona eta erakunde aniztasunari egiten zaio eraso, status quoarekin bat ez gatozenoi, usteltze demokratiko honen aurrean isilik geratu nahi ez dugunoi, eta itxaropenez josiriko testuinguru berrian zein ezker tinko eta gogotsua berrosatzeko prozesuan sinisten dugunoi.

Ez ote da izango hau, hain zuzen ere, Espainiar Erresumak hainbesteko beldur diona? Ez ote du beldurtzen bide demokratiko hutsekin borrokatuko duen gizarteak? Gizarte bateratu, indartsu, tinko, bizi eta parte hartzaileak? Zeinek eta zergatik egiten dio aurre gehiengo zabala biltzen duen manifestazio bati, are gehiago, bizitza eskubidea oinarrizkotzat jotzen badu beste giza eta politika eskubideak defendatzearekin batera?

Hamaikagarren eskubide urraketa hau (sasi)*demokraten* eskutik iritsi da, euren interesen mesedetan demokrazia zatikatzeko arazorik ez dutenengandik, gutizia moduan herritarren eskubideak hara eta hona darabiltzatenengandik; euren sorgin-ehiza eta gobernu bidegabeen aitzakia izango den gatazka armatua behar duten *demokratengandik*. Izan ere, beldur dira benetako bake testuinguru batean euren botere ia behin betiko horren oinarriak arriskuan dituztela. Gizarte honen eta bere parte hartzearen beldur dira *demokrata* hauek, herri mugimenduen aurrean kikildu egiten baitira, jakin badakite-eta herria dela hainbeste gezur eta demokrazia urraketarekin amai dezakeen bakarra. Eurek, *demokratek*, ez erabiltzekotan soilik onartzen dute demokrazia.

Hau guztia dela eta, gizarte gehiengoak itzaropena dakusan honetan, eurek beldurra nabari dute; sare anitz, borrokalari eta demokratikoak osatzen ari garenean, eurek terrorismoa dakusate; bakea dugunean helburu, eurek gatazka hau inoiz amai ez dadin bilatzen dute.

Baina ez gaituzte geldiaraziko, euren beldurra bide onetik goazen seinale onena da, gizartearen parte hartzean oinarrituriko bake eta justizia sozialaren alde egiten jarraitu behar dugu, beraz. Egun, inoiz baino gehiago, euskal gizarteak bere garaia du, indarkeria erabili eta eskubideak ukatzen dituztenenak egin du. Ez dugu atzera egingo.

Honegatik guztiagatik, Alternatiba osatzen dugun pertsonok Euskal Herriko ezker soberanistaren berrosatzea bermatuko duen testuinguru demokratikoaren alde egiten jarraituko dugu, botereari borroka esparru guztietan aurre egin aldera, erroko demokrazian eta parte hartze aktiboan oinarrituriko ezkerari esker.

Larunbat honetan kalera aterako gara erakustera benetako bake prozesuak gizarteak gidatu behar dituela, boterearen kudeatzaileak oztopatzen saiatuagatik ere. Hitzak protagonismoa hartuko duen garai berriaren beldur dira, baina Euskal Herriak hitza hartuko du eta ez dio uko egingo.

Alternatibaren Nazio Koordinakundeak, 2010eko irailaren 9an